

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Antiguako errota lanean

*Antzuola,
Gipuzkoa*

Aurkibidea



Biografia



Mutikotan Intxausti errotan ikasitakoak izan ziren [Florentino Lamariano](#)ren erroteri hastapenak. 1959. urtean Antiguako errota hartu zuen eta bertan erroteri eta okin lanetan jardun zuen, harik eta 1980ko hamarkadan Oñatiko Zubillaga auzoan okindegi industrial bat martxan jarri zuen arte. 1988. urteko uholdeak kalte handiak eragin zizkion erroteri, baina Foru Aldundiaren laguntzarekin errota uholdeen aurretik zegoen egoera berean jarri ahal izan zuen Florentinok. Grabazio garaian, Euskal Herriko ikasle asko etortzen ziren, Florentino erroteriaren azalpenak entzutera, Antiguako errota zaharra lanean ikustera. Grabazio honetan, Florentinok erroterien lanak azaltzen ditu. Artoa nola ehotzen den erakusten du, eta 24 baserrietarako argindarra nola sortu eta banatzen zuen azaltzen du.

Zintak

ANT-093

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa - Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2011-03-07
- **Iraupena:** 42 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

Pasarteak

1. Errota ixteko giltza eta turbina

- **Erref:** ANT-093/001
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Errota
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

<p>Errota ixteko giltza erakusten du eta bere erabilera azaltzen du: ura aurrera pasatzeko ireki beharrekoa. Ondoan turbina dago: abiadura neurtzen du. Zenbat eta ur gehiago hartu, orduan eta indar handiagoa du: ondorioz, artoa ondo ehoko da. Geldo baldin badoa, ez du ondo ehoko.</p>

2. Argindarra zelan sortzen zuten

- **Erref:** ANT-093/003
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:02:19. **Bukatu:** 00:04:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Baserrria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Beraien errotatik argindarra ematen zioten herriko hainbat etxeri. Alternadorea erakusten du eta non egoten zen. 1988ko uholdeek kalte handiak eragin zituen eta baztertuta du alternadorea. Argindarra sortzen zuten poleak erakusten ditu.

3. Errotako azpiko partean

- **Erref:** ANT-093/004
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:04:07. **Bukatu:** 00:05:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Baserrria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Errotako azpiko partean gaude errota martxan dagoen bitartean.

4. Ur gutxirekin errota geldo doa

- **Erref:** ANT-093/005
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:05:04. **Bukatu:** 00:06:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Baserrria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Artoa zelan ehotzen den ikus daiteke. Errota geldo doa ur gutxi baitu eta harriak ez du irin egiteko indarrik. Ur gehiago eman behar dio Florentinok abiadura gehiago hartu dezan.

5. Erreguladorea eta arto-aleak zelan jausten diren

- **Erref:** ANT-093/007
- **Iraupena:** 0:04:14. **Hasi:** 00:06:57. **Bukatu:** 00:11:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Errota
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

Antiguako errota martxan dago. Momentu honetan egiten ari den irina leuna dela dio Florentinok. Erreguladoreak neurtzen du zenbat ale behar duen. Harriak abiadura handia badu, bibrazio gehiago egiten du erreguladoreak eta ale gehiago eskatzen du, bibrazioak alea erregulatzen du. Erreguladorea kenduz gero, ez da arto-alerik jausten.

6. Gari-errota

- **Erref:** ANT-093/008
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:11:11. **Bukatu:** 00:11:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Baserría » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Gariaren eta artoaren errota desberdinak dira, bi errota dira. Hemen gari errota erakusten digu.

7. Errotarria zelan pikatu

- **Erref:** ANT-093/009
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:11:55. **Bukatu:** 00:15:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Baserría » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Errotariak harriak pikatu egin behar ditu, bestela irina egiteari uzten diote leundu egiten baitira. Harria pikatzeko zer egin behar den: "peskantea" erabiltzen da horretarako. Prozesu guztia azaltzen du, horretarako behar diren erremintak eskutan dituela. Errotako bi harriak pikatzea egun osoko lana da.

8. Asturiastik ekarritako errotarriak

- **Erref:** ANT-093/011
- **Iraupena:** 0:00:27. **Hasi:** 00:19:00. **Bukatu:** 00:19:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Florentinok beti ezagutu ditu harri berberak Antiguako erroten. Bere gurasoei entzuna die Asturiaseko harrobi batek egiten zituela errotarriak eta handik ekarritakoak direla hauek ere.

9. Tranga, tringarabara, zakuari eustekoa

- **Erref:** ANT-093/013
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:19:42. **Bukatu:** 00:21:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Tranga, tringarabara eta zakua betetzeko uztaiak erakusten dizkigu. Zaku txiki batekin erakusten digu zelan betetzen zuten.

10. Zakuen tamainak

- **Erref:** ANT-093/014
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:21:41. **Bukatu:** 00:22:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Lehenago baserritarrek anega (45 kilo) eta anega eta erdiko zakuak erabiltzen zituzten.

11. Peskantea, ale-kaja, "usillua"

- **Erref:** ANT-093/016
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:22:27. **Bukatu:** 00:24:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Errotarria peskantearekin pikatzen da. Peskantea zelan erabiltzen den, harria zelan jasotzen duen azaltzen du. Ale-kaja eta "usillua".

12. Errotarriaren erreguladoreak, irin leuna edo latza egiteko

- **Erref:** ANT-093/017
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:24:11. **Bukatu:** 00:25:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Baserrria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Harriaren erreguladoreak, harria altxatu eta bajatu egiten dutenak erakusten dizkigu. Horrekin irina latzagoa eta leunagoa egin erabakitzen da. Ez da komeni errotarriek beraiek artean asko igurztea, harri-hautsa ez pasatzeko.

13. Galbahea eta bahea

- **Erref:** ANT-093/018
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:25:37. **Bukatu:** 00:27:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Baserrria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Galbahetik alea pasatzen da eta bahiek zahia kentzen dio, fin-fina izateko beharrekoa da bietatik pasatzea irina.

14. Orduko 65-70 arto-irin kilo

- **Erref:** ANT-093/019
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:27:04. **Bukatu:** 00:28:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Baserrria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Orduko 65-70 kilo arto-irin egiten ditu Antiguako errotak. Garia, oster, gehiago, 100 bat. Arto-motak ere zerikusi handi du. gaur egungoa hibridoagoa da. Lehen ekartzen zutena, gogorragoa zen eta gehiago kostatzen zen. Irudietan ikusten da errota martxan dagoela eta bertako artoa etxekoa da, bigunagoa eta ehotzeko errazagoa.

15. Garia garbitzeko tresna

- **Erref:** ANT-093/021
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:29:30. **Bukatu:** 00:31:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Errota
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

Irudietako aparatua Florentinok ez du lanean ezagutu. Garia garbitzeko erabiltzen zen; izan ere, satsa, harria... izaten zuen. Baina berak beti ezagutu zuen garia makinaz jotzen, ez eskuz. Hau ere turbinaren indarrarekin jartzen zen martxan. Barruan galbahe bat du eta garia eta zikinkeria banatzen zituen.

16. Artoa eta irina gordetzeko kutxak eta pisatzekoa

- **Erref:** ANT-093/023
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:32:06. **Bukatu:** 00:34:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Baserría » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Historiak dio Antiguako errotak eta etxeak 400-500 urte inguru dituela. Arto-alea eta irina non gordetzen eta non pisatzen zuten.

17. Lau auzotarako 24 baserritarako argindarrerako giltzak

- **Erref:** ANT-093/024
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:34:07. **Bukatu:** 00:35:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Errota
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Antiguako errotatik argia ere sortzen zuen. Auzo bakoitzak bere giltza zuen eta horrek erakusten dizkigu. Giltza bakoitza zein auzotarako den azaltzen du, guztira lau auzotako 24 baserritarako argindarra ematen zuten.

18. Erreostatoa, amperemetroa, voltmetroa

- **Erref:** ANT-093/025
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:35:36. **Bukatu:** 00:37:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserría » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Erreostatoarekin tentsioa mugitzen zuten turbina mugitu barik. Amperemetroa, voltmetroa, tentsioa eta kontsumoa kontrolatzen zituen. Frekuentzi falta zuen eta telebistarako edo lisaburdinarako arazoak izaten zituzten, orduko indarraren arazoak.

19. Labeari buelta emateko gurpila eta zelemína

- **Erref:** ANT-093/026
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:37:02. **Bukatu:** 00:38:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Labeari buelta emateko gurpila ikus daiteke. Transmisioaren bitartez labeak buelta ematen zuen ogia egiten zegoela. Zelemina neurtzekoa ere erakusten du. Lau zeleminekin "iminia" egiten da eta lau "imini"rekin anega bat (45 kilo).

20. Erremintak zorrotzeko makina

- **Erref:** ANT-093/028
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:38:38. **Bukatu:** 00:39:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

Erremintak zorrotzeko makina erakusten du Florentinok. Lehenago destera erabiltzen zen, urarekin funtzionatzen zuena hankarekin eraginda.

21. Tresnak lixatzekoa

- **Erref:** ANT-093/029
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:39:49. **Bukatu:** 00:40:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

Tresnak lixatzekoa erakusten digu.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com